

Trebiñoko Udalak erreferenduma egin nahi duten ala ez galdetuko die herritarrei

Eskualde hori Araban barneratzearen alde dagoen jakiteko aurrerapausoa da

Trebiñoko Udalak Araban sartzeari buruz erreferenduma egin nahi duten edo ez galdetuko die herritarrei, atzoko udalbatzarrean erabaki hori hartu ondoren. Alkatea, PPko Ernesto Argote, Gaztela-Leonen jarraitzearen aldekoa da, baina argi esan zuen herritarren borondatea errespetatuko duela. UDA elkartearen arabera, eskualdeko biztanleen %95 Araban barneratzearen aldekoak dira.

Ramon Olasagasti / Donostia

TREBIÑOKO UDALEAN PPK agintzen du lau zinegotzirekin; eta talde independenteak, berriz, hiru zinegotzi ditu. Ernesto Argote alkatea eta, oro har PP, Trebiñoko eskualdea Araban barneratzearen aurka daude, nahiz eta erreferendum bati aterik ez liokeela itxiko esan izan duten. Beraz, aurrerapausotzat hartu liteke erabaki hori.

Erabaki hori jasotzen duen testuak honela dio: «EAEko zein Gaztela-Leongo estatutuetan aurkeztu den erreferenduma eta, izan dadila Trebiñoko herria boto sekretuaren bidez erreferenduma bai edo erreferenduma ez erabakiko duena».

Trebiñoko eskualdeko biztanleen %95 Araban sartzearen alde daudela uste du UDA elkarteak, eta urteotan guztian bide horretan ari da lanean. Beste zenbait, ordea, Ernesto Argote alkateak kasu, ez du hori hain argi ikusten. Dena den, kontuan izan



Trebiñoko alkatea (irudian udaletxea) herriaren borondatea errespetatuko duela esan du.

JOSEBA OLALDE

behar da Trebiñoko konderria bi udalerri osatzen dutela, Trebiñok batetik eta Argantzunetik, eta argantzundarren alkatea, Alfredo Oraa sozialista, eta ia herritar guztiak eskualdea Araban sartzearen aldekoak direla.

Ernesto Argote Trebiñoko alkateak, gainera, batzarraren ostean adierazi zuen kontsultak haserrea saihesteaz gain, trebiñarren sentimendu nagusia argi utziko duela. Alkateak, halaber, zehaztu zuen herritarren borondatea beteko duela.

Talde independenteko bozemaile Alfredo Ruiz de Samaniegok, berriz, erabakia «aurrerapausoa» dela adierazi zuen, baina zehaztu egin zuen erantzuna: «Guk nahiago genuke erreferenduma berehala egitea, eta ez kon-

tsulta, baina ez da soilik gure erabakia, PPrena ere bada». Horrez gain, Ruiz de Samaniegoren iritziz, Trebiñoko eskualdea Gaztela-Leonen geratzaren alde daudenek ez lukete desanexioa galar bezala ulertu behar. «Hau herritarren erabakia da, eta herritarrek esan beharko dute non nahi duten egon», gaineratu zuen.

Trebiñoko Udalak hartutako erabaki horretan jasotzen da, era beran, Espainiako Gobernuari kontsulta egiteko eskaera egitea eta Estatistika Institutuari erroldari buruzko zerrenda gaurkotua eskatzea. Halaber, PPko zinegotziek eta independenteez hitzartutako testu horren arabera, Udaleko bi taldeek mozio bat egingo dute kontsulta zer oinarriekin egingo den zehazteko. Mo-

zio hori otsaileko ohiko batzarrean aurkeztuko da, eta onartuko balitz orduan erabakiko litzateke erreferendumari buruzko galdera hori noiz egin.

Erabaki horiek guztiak Gaztela-Leongo eta EAEko erakundee-tako ordezkariak afera hau konpontzeko sortu zuten bitariko batzordeari jakinaraztea ere ebatzi zuten udalbatzarrean. Vicente Orden Vigarak, Burgosko diputatu nagusi eta batzorde horretako kideak, zalantzan jarri zuen erabaki horren legaltasuna. Era berean, Gaztela-Leongo lurraldearen batasuna «sutsuki» defendituko dutela gaineratu zuen. Alkatearen eta PPko zinegotzien erabakiari buruz, berriz, esan zuen zaila dela han bizitzea, «egunero presioak jasotzen dituztelako». X

UPNk HBren kritikak jaso ditu prozedura automatikoari eustegatik

«Interes demokratikoen gainetik jartzen ditu alderdiarenak»

Erredakzioa / Iruñea

HB-REN iritziz, UPNk onartu nahi duen lege aldaketak ez du Nafarroako Gobernuak lehendakaria aukeratzeko sistemaren sakoneko arazoa konpontuko. «Proposatu duten aldaketa azal-azalekoa da. UPNko Gobernuak ez dauka aspaldiko arazo hau konpontzeko eta Nafarroako erakundeak demokratizatzeko inolako borondatearik, demokraziazaren gainetik jartzen dituelako alderdiaren beraren interesak», adierazi zuen atzo HBk.

Nafarroako Gobernuak lehendakaria aukeratzeko epea laburtzea proposatu du, baina prozedura automatikoa ukitu gabe. Nafarroan boto gehien eskuratzen duen alderdia den aldetik, prozedura automatikoa UPNri egiten dio mesede -beste alderdiak ados jartzen ez badira, gobernuburua boto gehien jasotzen duen alderdiko hautagaia izango dela ageri baita Foru Hobekuntzan-. CDN, EA eta IU Gobernuaren proposamenaren kontra agertu dira, eta Foru Hobekuntzaren 29. artikularen aldaketa eskatu dute. PSNk bihar argituko du bere jarrera.

HBren irudiko, gaur egungo sistema «lotsagarria» da, horri esker Parlamentuan 17 ordezkari besterik ez dituen alderdi batek agintzen duelako Nafarroako Gobernuan. «UPNk lehendakaria aukeratzeko modu justuago eta demokratikoa-ago batekin ez luke Lehendakaria hain erraz eskuratu-ko», azaldu du HBk. X

Barne Ministerioak kalteordaina ukatu dio Poliziak hilzorian utzi zuen gazte bati

«Arrisku egoera» Mikel Iribarrenek sortu zuela dio eskaera atzera botatzeko

Erredakzioa / Iruñea

ESPAINIAKO Barne Ministerioak ez dio kalteordainik emango Mikel Iribarren iruindarrari 1991. urtean, 16 urte zituela, ke zauri buruan eragin izakion zauri larriengatik. Ministeriora- zaurituak berak eragin zuen eta, Iribarrenek, ez dizkio ordainduko milioi pezetak (bi milioi libera inguru). Gaztearen abokatuak Auzitegi Nazionalan errekurritu du Barne Ministerioaren erabakia.

Iribarren Iruñeko San Lorenzo elizaren parean zauritu zuten 1991ko abenduaren 15ean. Egun hartan manifestazio bat

izan zen Iruñean, eta ondoren istilu latzak egon ziren Alde Zaharrean. Poliziak ke poteak erabili zituen, eta haietako batek bete-betean jo zuen Iribarren. Gaztea hilzorian egon zen, eta azkenean bizirik atera bazen ere, makina bat ebakuntza egin behar izan zizkion aurpegia itxuratzeko. Zauriek erredurak eta bestelako ondorioak utzi zizkion.

Espainiako Barne Ministerioan Iribarrenen eskaera aztertu zuen instruktoarearen arabera, gazteak badu erantzukizunik gertatutakoan, parte hartu omen zuelako istiluetan eta «nahita sortu zuelako arrisku egoera». Hala ere, gazteari hamasei milioi pezeta ordaintzea proposatu


zuen, zauriak zerbitzu publiko batek eragin zizkiola argudiatuta.

Estatu Kontseiluak, berriz, atzera bota du eskaera, ez omen dagoelako jakiterik ke potea polizia batek bota zion ala ez, eta «frogatuta dagoelako erreklamazioa egin duenak parte hartu zuela manifestazio biolentean». Ildo beretik, biolentzia norberak sortzen badu gero ondorioengatik kalteordainik eskatzerik ez dagoela adierazi du Estatu Kontseiluak.

Barne Ministerioaren eta gaztearen bertsioak ez datoz bat. Iribarrenek ke potea jaso zuenean inguruan istilurik ez zegoela deklaratu izan du izan diren agerraldi guztietan. X



Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea

ERREKTOREGOA
RECTORADO

**LEHIAKETA PUBLIKOA
IRAKASLE LAGUNEN ETA BEHIN-
BEHINEKO IRAKASLE TITULARREN
PLAZAK**

Argitara ematen da guztiek jakin dezaten, Euskal Autonomi Erkidegoko prentsan 1997ko abenduaren 17an argitaratutako lehiaketari dagozkien lehiakide onartu eta ez onartuen behin-behineko zerrendak Lehiaketa-Ataleko eta Campusetako Errektoreordetzetako iragarki-tauletan azaltzen direla.

Leioan, 1998.eko urtarrilaren 16an.

IRAKASLEEN ERREKTOREORDEA,
Miren Azkarate Villar.